



Hizkuntza erabileraren neurketa



DONOSTIAKO
EUSKALTZALEEN
ELKARTEA

2007ko uztaila

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Idatzizko materiala

2.1. Egitarau osatua

2.2. Prentsa oharra

2.3. Web orria

2.4. Jazzaldiko kartela

2.5. Programa

2.6. Gironda eta Donostia arteko topaketa

2.7. Bestelakoak

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

3.3. Bestelakoak

4. Ondorioak

1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdi hau. BAGERAK, honetaz gain, Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da, oraindik ere.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera saioen aurkezpenetan baino ez da gertatzen. Era berean, idatzizko materiala, oinarritzko esku liburuetara eta paisai linguistikora mugatzen da, batez ere. Donostian egiten diren beste ekintza batzutan ez bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz, musika emanaldietan egiten den erabilera behatu gabe.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak, egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute, eta noski, urtez urte euskararen presentzia handitzen joatea, eta euskara normalizatzen joateko aurrerapausoak egitea.

1.1. Lan metodologia

Denetara zortzi lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabilera eta idatzizko materiala aztertuz.

Jazzaldia iristen den guneko guztietako emanaldiren bat gutxienez behatzen saiatu gara, behaketa ahalik eta osoena izan dadin.

Ohar modura esan, txostenean bi eletan edo bi hizkuntzetan esaten denean, besterik zehaztu gabe, euskaraz eta gaztelera esan nahi duela.

2. Idatzizko materiala

2.1. Jazzaldiaren egitarau osatua

Jazzaldiari buruzko informazioa luze-zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri ematen du. Aurtengoak 56 orrialde ditu.

Lehen orrialdean, azalean, 2007ko kartela azaltzen da (ikus 2.4.). Azken orrialdean Heinekenen iragarkia ageri da gazteleraz.

Sarrera bi eletan idatzirik dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta hitzez hitzeko itzulpena da. Euskarazkoa gris argiz dago eta gaztelerazkoa beltzez. Euskarazkoa ezker aldean egon arren kolorearen diferentziak gaztelera nabarmentzen du.

Jarraian, atal desberdinetan egunez egun dauden ekitaldietan parte hartuko duten taldeei buruzko azalpenak datoz, informazio guztia bi eletan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz, testu hauetan ere, euskarazkoa gris argiz dagoenez eta gaztelerazkoa beltzez, gaztelerazkoa gehiago nabarmentzen da.

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelera da hizkuntza nagusia.

Gaztelera hutsezko iragarkiak:

2 or. BEN & JERRY'S
6 or. Menabi (Skoda)
12 or. fnac
14 or. Expo Zaragoza
16 or. Cuadernos de Jazz
18 or. Distrito Jazz
22 or. Donostiako Udala eta Donostiako Sustapena
23 or. Giroa
24 or. Volkswagen
34 or. Blue note eta Emi music
46 or. Universal
48 or. Cadena Ser
49 or. Nordic Mist
50 or. Quadrant records
53 or. Jazz Euskadi (Eusko Jaurlaritza)
56 or. Heineken

Euskara hutsezko iragarkiak:

8 or. Kutxa
52 or. Getxo Jazz

Euskaraz eta gazteleraz azaltzen diren iragarkiak:

10 or. El Diario Vasco
32 or. fnac
40 or. fnac

Hizkuntzarik gabekoak:

20 or. Obegisa (Enpresaren izena gazteleraz dago eta helbidea euskaraz daukate)

2.2. Prentsa oharra

BAGERAn, posta elektroniko bidez 40 mezutik gora jaso ditugu. Ia guztietan informazioa bi eletan jaso dugu, azken orduko ohar batzuk emateko gaztelaraz jaso ditugun 3 mezu izan ezik.

Aurkezpenean banatutako materialean bi CD jaso ditugu: batean Jazzaldian parte hartu dutenen argazkiak daude eta, karatulan bi eletan azaltzen da informazioa. Bestean musika dago, karatula kartel ofiziala du eta CDan "CD MÚSICA" jartzen du gaztelara hutsean.

Prentsaurreko gehienetan banatu den informazioa, euskaraz eta gaztelaraz jaso zitekeen. Hala ere hutsuneak izan dira:

- Aurreikusitako prentsaurrekoen prentsa oharra, hiru hizkuntzetan banatu zen arren (euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez) gaztelara da nagusi. Lekuak (adib: Club Victoria Eugenia) eta prentsaurrekoen izenburuak gaztelaraz agertzen baitira.
- Kazetarientzako arauen 2 orrietako txostena ere, gaztelara hutsean jaso dugu soilik.

Egitarauaren eguneratzea hiru eletan txukun azaltzen da.

2.3. Web orria

www.jazzaldia.com helbidean sartuz gero, lehenengo pantailan hizkuntza aukeratu behar da.

Euskara hautatuz gero informazio guztia bi eletan dago, 42. Heineken Jazzaldia egunez egun atala klikatzean izan ezik. Bertan klikatuz gero www.canales.diariovasco.com/heineken-jazzaldia/ helbidean sartzen zera eta bertan informazio guztia gaztelaraz dago.

2.4. Jazzaldiko kartela

Aurtengo Jazzaldia iragartzeko kartelean, azaltzen den informazioa, laburra bada ere, euskaraz eta gaztelaniaz dago. Data bi eletan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gaztelaraz eta 42. Heineken Jazzaldia jartzen du.

2.5. Programa

Orrialdeko programan, datak, lekuak eta bestelako oharrak ere hiru eletan azaltzen dira. Lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz eta ingelesez.

2.6. Girona eta Donostia arteko topaketa

Girona eta Donostia arteko topaketen baitan, zenbait musikarien trukaketaz gain, hango eta hemengo turismo eskaintzak zabaltzen izan dira.

Horretarako, Kursaalera Zurriola terrazan, zenbait saltoki eta stand egon dira Gironako gastronomia eta turismo eskaintza ezagutarazteko. Aurtan ez dugu topatu bereziki Jazzaldirako ateratako triptikorik. Stand-ean zeuden mapa eta liburuxkak gaztelaraz edota frantsesez zeuden (hauek ez ziren espresuki Jazzaldirako eginak). Produktu gastronomikoak saltzen zituen standeko kartelak gaztelaraz zeuden, soilik prezioen zerrendekin Jazzaldiaren antolaketak eginiko zerrendak zeuden bi eletan.



2.7. Bestelakoak

- **Zurriola eta Kursaal gunetako paisai linguistikoa:**

Aurten ere hiru eskenatoki ezberdin jarri zituzten. Heineken karpa, Frigo gunea eta Eskenatoki Berdea.

Jazzaldiaren dendan, prezioen zerrenda bi eletan zegoen eta aurten ez ditugu ikusi produktu bakoitzaren ondoan txarteltxorik.



Kursaaleko gunean zehar, bide seinale moduko batzuk zeuden gune bakoitzera joateko norabidea erakutsiz. Seinale hauetan guneen izenak gaztelera hutsez zeuden.



Tiketen salmenta postuetan, prezioen zerrendak bi eletan zeuden eta edarien zerrendaz gain, “El rincón del marisco”-n zeuden produktuen zerrendak ere bi hizkuntzetan zeuden. Edaria edo janaria erosteko tiketak bi eletan zeuden.



“El rincón del marisco” postuan berriz, bertakoak ipinitako prezioen zerrendak gaztelera hutsez zeuden.



Karpa edo jaima bakoitzean zeuden ohar gehienak hiru eletan zeuden; salbuespena tiketeretan, “un ticket = una ronda” oharra izan da, gaztelera hutsez eta ingelesez bakarrik baitzegoen lelo nagusia, nahiz eta azalpenak hiru eletan egon.

Frigo gunean, hainbat salmenta postu jarri ziren. Horien artean Fnac musika dendarena, salneurriak gaztelera hutsez zituzten.

Heineken karparen kanpoaldeko terrazan Expo Zaragoza 2008 propaganda gunea zegoen, zeinetan informazio guztia gaztelera hutsez idatzia zegoen.

Zurriolako hondartzako agertoki berdean, “Escenario verde” soilik jartzen zuen aurrean eta atzean, eta alboetan Heineken markaren leloa gaztelera hutsez. Bertako pantaila batean ohar ezberdinak ageri ziren hiru eletan. Mezu bera zen beti eta hizkuntzak tartekatzen ziren; batean hiru hizkuntzetan, beste batean, euskaraz eta ingelesez...(hondartzak garbi mantentzekoa...). Euskarazko mezua gaizki idatzia agertzen zen “Gozatu, bertziklatu...Bizi bizia eta hondartza garbia”. Gaztelera hutsezko itzulpen kaxkarra eginez.

Zurriolako hondartzan aluminiozko botila hutsak birziklatzeko zakarrontziak jarri zituzten, hauek non zeuden adierazteko karteltxoak gaztelera hutsez zeuden.

Aurten bi berrikuntza topatu ditugu Kursaaletako terrazetako gunetan. Eskenatoki bakoitzaren kanpoaldean, egunean bertan eskenatoki horretan izango ziren kontzertuen berri ematen zuen kartel handia jartzen zuten, hiru eletan. Ondoan, Jazzaldi guztian zehar eskenatoki bakoitzean (tokian tokiko) izango ziren kontzertuen informazioa agertzen zen, hiru eletan baita ere.

Bestetik, Kursaaletako gunearen sarreran, pantaila handia jarri dute aurten. Bertan, Trinitateko enparantzan bezala, Jazzaldian parte hartuko duten talde guztien berri ematen zen, eguna eta taldearen izena besterik ez zen azaltzen; eguna gazteleraz adierazten zen. Telefonikako iragarkia ere askotan agertzen zen, hau ere, gaztelera hutsean. Horrez gain, Heinekeneko propaganda ere egiten zuen pantaila honek, "disfruta, piensa en verde" eta horrelako beste hainbat mezu irakur zitezkeen. Mezu guztiak gazteleraz ziren, Jazzaldiko informazioa lortzeko web orrialde bat aipatzen zuena izan ezik, honetan lehenbizi gazteleraz eta ondoren euskaraz ematen zen informazioa.

- **Kursaal auditorioa:**

Kontzertu bakoitzean sartzera, eserleku bakoitzean Kursaaletako Auditorioan datozen hilabetetan egingo diren emankizunen berri ematen duen liburuxka uzten zuten, bietan zegoelarik.

Kontzertuen hasieran eta amaieran eskenatokian Jazzaldiko logotipoa eta Kutxa korporazio irudia ikus zitezkeen, inolako lelorik gabe.

- **Trinitate plazako paisai linguistikoa:**

Trinitate plazaren sarreran hainbat panel zeuden. Hauetako batean, Trinitateko kontzertu guztien berri ematen zen, izenburua gazteleraz ("Programa Plaza Trinidad") eta data hiru eletan zeuden. Ondoan, Jazzaldiaren programarekin beste panel bat zegoen, hau hiru eletan zegoelarik.

Trinitatera sartzean mapa handi bat zegoen, hiriko gune ezberdinak azaltzen zituen gazteleraz.

Plazaren goiko harmailen gainean pantaila bat zegoen. Bertan, jaialdiaren izena agertzen zen (Heineken 42. Jazzaldia). Emanaldi bakoitzean, zegoen artista edo taldearen izena agertzen zen pantailan. Hala ere, behealdean talde bakoitzak zein egunetan jotzen zuen gazteleraz agertzen zen.

Atsedendutik, Telefonica enpresaren mugikorren propaganda ipintzen zuten, gaztelera hutsean.

Trinitate enparantzan, edariak eta ogitartekoak zerbitzatzeko bi barra zeuden eta Jazzaldiko kamiseta ofizialak saltzeko postua ere, guztietan salneurrien zerrendak gazteleraz zeudelarik.

- **Haizeen Orraziko paisai linguistikoa:**

Ez genuen hizkuntza aldetik aipagarria den ezer topatu; Giroa enpresaren propaganda zegoen bakarrik, lelorik gabekoa.

- **Victoria Eugeniako paisai linguistikoa:**

Haizeen Orrazian bezala, ez genuen ezer aipagarriarik topatu. Eskenatokian, kontzertua hasi aurretik eta ondoren, Jazzaldiko logotipoa bielelan eta Expo Zaragoza 2008ko propaganda gaztelera hutsean agertzen ziren.

- **Beste batzuk:**



Kaleko faroletan, Jazzaldiko kartela eta Heinekenen iragarkiarekin zintzilikarioak ikusi ditugu. Alde batetik, Jazzaldiko kartela (aurretik azaldua), eta bestetik Heinekeneko iragarkia dago, hizkuntzarik gabekoa bada ere, kartelaren azpian “+ info en www.heineken.es” ipintzen du.



Jazzaldiko autoetan, “Skoda Jazzaldiaren kotxe ofiziala” leloa euskaraz, albo batean, eta gaztelaraz, bestean ikus zitekeen. Aurten, Volkswagen-en furgoneta ere ikusi dugu, honetan bi aldeetako leloa gaztelaraz zegoen.

Bestelako oharrak ere izan dira eta guztiak hiru elean ikusi ditugu (hesietako oharrak, tabernetan, Jazzaldiko bulegoan, e.a.).



Jazzaldian zehar banatutako hainbat publizitate eskuorri jaso ditugu, hauetako batzuk bi eletan eta besteak gaztelera hutsez banatu dira:

- Kursaal fundazioak 8. denboraldiko liburuxkak banatu zituen, urritik urtarrilera egongo diren jardueren berri emanez. Guztia bielelan dago.
- Skoda etxeak Trinitate plazan banatu izan ditu azaleko leloa gaztelera hutsez zuten esku orriak. Barruan autoen ezaugarriak gaztelaraz zeuden, markaren leloa ingelesez eta helbidea euskaraz zituen.
- Onda Cero-k Jazzaldiaren inguruko liburuxka banatu zuen Kursaalera, guztia gaztelaraz.
- FNAC dendak, Jazzaldirako esku orria banatu zuen, euskara zertxobait azaltzen bada ere agendan, nagusiki gaztelaraz dago eta azaltzen diren testu guztiak gaztelera hutsean zeuden.
- Noticias de Gipuzkoa egunkariak Jazzaldiaren inguruko edizio berezia banatu zuen Kursaalera, 16 orri zituen eta nagusiki gaztelaraz zegoen idatzia, soilik orrialde bat zegoen euskaraz (artikulu bat). Beste orrialde batean, izenburua gaztelaraz duen arren (La capital del jazz es) ele bietan dago jazzaldiko egitaraua eta azken orrialdean Kutxaren iragarkia ageri da euskarari lehentasuna emanez.
- Expo Zaragoza 2008-koak esku-orriak banatu dituzte Kursaalera, guztia gaztelera hutsez.
- Diario Vasco egunkariak gehigarri bereziak atera zituen bere egunkarian, guztiak gaztelera hutsean. Soilik Jazzaldiak eta Kutxak jarritako iragarkiak zeuden ele bietan.

Jazzaldiaren antolakuntzak egunkarietan jarri dituen iragarkiei buruz, esan bi egunkaritan jarritako bi iragarki bakarrik eskuratu ditugula. Bi iragarkiek egitura berdina izan arren, lelo nagusia desberdina zuten (bat euskarazkoa eta bestea gaztelerazkoa). Programazioaren atala bi eletan zegoen bi kasuetan. Jazzaldiaren amaieran beste iragarki bat ikusi dugu eskerrak emanez, bieletan.

Bestalde, Diario Vasco egunkarian egunkaria beraren iragarkiak ikusi ditugu, batzuetan egitaraua azaltzen zen eta bestetan iragarki soila. Iragarki soila bieletan zegoen eta egitarauaren iragarkia gaztelera hutsean.

3. Ahozko erabilera

3.1. Prentsaurrekoak

- **Aurkezpen prentsaurrekoa:**

Victoria Eugenia izan da ekainaren 28an. Bertan, Jazzaldiaren antolakuntzatik Miguel Marin zuzendaria eta Jesus Torquemada prentsa arduradunak izan dira. Donostiako alkate Odon Elorza ere bertan zen eta Diego Antoñanzas Heinekeneko ordezkaria.

Prentsaurrekoa Jesus Torquemadak hasi du, bi eletan egin du aurkezpena eta berehala hitza eman dio Miguel Marin zuzendariari. Honek gazteleraz egin du aurkezpena. Ondoren, Girondeko ordezkariak hartu dute hitza; frantsesez hitz egin dute eta Jesus Torquemadak itzulpena gaztelerara egin du. Azkenik Odon Elorzak hitz batzuk egin ditu, denak gaztelaniaz.

- **Ann Hampton Callaway:**

Uztailaren 24an izan zen Victoria Eugenia antzokiko club-ean.

Jesus Torquemada eta Ann Hampton izan ziren. Galdera guztiak gazteleraz egin ziren eta Torquemadak eginiko itzulpenak gazteleraz. Galdera gehiago zeuden jakiteko hiru eletan galdetu zuen.

- **The Skatalites:**

Prentsaurrekoa Victoria Eugenia antzokiko club-ean izan zen uztailaren 24ean. Bertan, taldeko bi kide eta Jesus Torquemadak hartu zuten parte.

Jesusek aurkezpen txiki bat egin zuen hasieran gazteleraz eta segituan galderetarako tarte ireki zuen gazteleraz eta ingelesez. Taldeko bi kideek ingelesez hitz egin zuen, eta Torquemadak itzulpenak gaztelerara egin zituen. Galdera guztiak gazteleraz izan ziren.

- **Donostia Jazzaldia saria:**

Uztailaren 28an, izan zen Victoria Eugenia antzokian. Bertan Miguel Martin zuzendaria eta Jesus Torquemada prentsa arduraduna izan ziren Jazzaldiaren antolakuntzatik.

Miguel Martinek saria eman aurretik hitz batzuk egin zituen, gazteleraz. Saria jaso ondoren, Wayne Shorter-ek hitz batzuk egin zituen, ingelesez, itzulpenak Jesus Torquemadak egiten zituen, gaztelerara.

3.2. Kontzertuetako aurkezpenak

Aurkezpenak izan ziren kasuetan bi hizkuntzetan izan ziren, gehienetan lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Aurkezpenek beti eskema bera jarraitu zuten Trinitatean: bi talde izaten ziren, lehenengo taldearen aurkezpena euskaraz hasi eta gero gazteleraz bukatzen zutelarik. Lehenengo kontzertua amaitu ondoren, bigarren kontzertuaren berri ematen zuten,

lehenengo gazteleraz eta gero euskaraz. Bigarren kontzertua hastean, aurkezpena lehenengo euskaraz, eta gero gazteleraz egiten zuten. Hau amaitzean, hitz batzuk egiten zituzten, gauean zehar zeuden gainontzeko kontzertuen berri emanez eta abar, lehenengo gazteleraz eta gero euskaraz.

Kursaal Auditorioan, kontzertuak hasi aurretik zenbait ohar ematen zituzten; aretoak 14 irteera zituela eta bakoitzak bere atetik irteteko, mugikorrek eta argazki kamerak itzaltzeko eskatu zuten bozgorailuetatik, lehenbizi euskaraz eta gazteleraz ondoren, beti ere bi hizkuntzen arteko oreka mantenduz. Kontzertuen aurkezpenak ere bieletan egin ziren, lehenbizi euskaraz eta ondoren gazteleraz, modu txukun eta egokian.

Victoria Eugenia antzokian izandako kontzertuetan ere aurkezpenak bi eletan izan egin dira, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Gainontzeko agertokietan (Kursaaleko terrazak eta hondartza) izandako kontzertuetan, aurkezpenak izan direnetan hauek bieletan egin izan dira, eta gehienetan aurrez egingandako grabaketak ziren.

Aurkezpen ofizialeetatik aparte, talde batzuek beren burua aurkezten zuten, kontzertuaren bukaeran batez ere, musikari bakoitzaren izenak aipatuz. Gehienek ingelesez hitz egiten zuten eta bateren batek gazteleraz ere bai. Talde baten kasuan gutxienez, aurkezpena egingo zuen pertsona bat jarri zuten (ez dakigu Jazzaldiaren antolakuntzakoa ote zen) eta honek agurra euskaraz egin bazuen ere, gehiengoa gazteleraz izan zen.

3.3. Bestelakoak:

- **Osagarriak:**

Kursaal auditoriora sartzekoan eta sarrerak hartzen dituztenen artean guztiek ez zekiten euskaraz. Behin aretoan sartuta jendearen eserlekuak aurkitzeko zeuden neskak euskaraz erantzuten zuten. Trinitateko sarrerakoak, berriz, gazteleraz egin digute.

Materialaren dendetan, tabernan eta edari salmenta postuetan ere denetarik zegoen; batzuek euskaraz bazekiten arren beste batzuek ez.

4. Ondorioak

Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren **egitarau osatuan, egitarau laburtuan, liburuan eta abar, elebitasuna nagusi** izan da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Bi eletan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera) bata bestearen itzulpen literalak dira, orokorrean. Eta beti lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude, nahiz eta koloreagatik gaztelera zkoa nabarmendu.

Egitarau laburtuan, egitarau osatuan eta oro har idatzizko materialean azaltzen diren **iragarle etxeen iragarki gehienak gaztelera hutsez** daude. Hogei iragarle etxe izan dira, horietatik hamasei gaztelera, euskara hutsez bi, bi eletan eginikoak bi, eta hizkuntzarik gabekoa bat. **lazkoarekin alderatuta gaztelera hutsean egindakoak gehiago izan dira, eta bi eletan edo euskara hutsezkoak gutxiago izan dira.** Azken bi urteetan datuak pixka bat okertu egin dira, beraz, iragarkietan euskara kontuan hartzeko eskatuz, Jazzaldia hasi aurretik duela bi urte BAGERAtik luzatu genien proposamenak eragina duela uste dugu, hala ere, emaitzak beharko litzatekeenetik urrun daude. Bestetik, iragarle batzuek gaztelera soilik erabili izanak larria iruditzen zaigu eta hauekin lanketa berezia egingo dugu ea datorren urterako zuzentzen duten, besteak beste honako hauek: Jazz Euskadi (Eusko Jaurlaritza) eta Donostiako udala eta Donostiako sustapenak egindakoak.

Paisai linguistikoan hainbat hutsune ikusi ditugu:



1. Seinaleak

2. Volkswageneko furgonetan errotoak

3. Ticket 1 = Erronda 1



4. Kursaal gunean izaten diren stand-ak berdea

5. Hainbat zerrenda

6. Agertoki

7. Trinitate plazan, paneletako baten izenburua: "Programa Plaza Trinidad" eta hiriko mapa handi batean guneen izenak.

8. Hondartzan aluminiozko botilak birziklatzeko zakarrontzietako karteltxoak.

9. Iragarleen publizitatea.

Jasotako prentsa oharra oro har bi eletan izan dira.

Web orriaren kasuan, www.jazzaldia.com helbidean sartzerakoan, lehenengo pantaila hizkuntza aukeratzeko da, horrela oreka mantenduz. Hala ere, aurten hutsune bat topatu dugu. Menuaren aukera bat klikatzerakoan beste web orri batetara sartuz gaztelarazko informazioa soilik ematen duelako.

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, **aurkezpenetan elebitasuna mantendu da**, hau da, euskara eta gaztelera erabili dira. Lehenengo eta azken hitzak euskaraz izan ohi dira eta hizkuntza bakoitzean informazio propioa landu da.

Hala ere, **prentsaurrekoetan eta aurkezpenetatik kanpo gelditzen diren beste agerraldietan (sari banaketak)**, hutsunea egoten jarraitzen du **gaztelera nagusi** izan baita.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan arren, oro har elebitasuna mantendu delako bai ekitaldien aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere, urteroko hutsuneak errepikatu dira bai idatzizkoan baita ahozkoan ere.

BAGERAK Donostiako Jazzaldiko arduradunak zoriondu nahi ditu euskarari ematen dioten lekuagatik. Era berean, aipatutako hutsuneak urtez urte zuzentzen joan ditzan eskatu nahi diegu Jazzaldiko antolatzaileei.

Donostian, 2007ko uztailan



**Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea**

Katalina Eleizegi 36 behea.

20009 Donostia

Tlf.: 943 467181

bagera@bagera.net

idazkaritza@bagera.net